

KONTZILIAZIO BAIMENAK

- MARTXOAREN 17ko,
8/2020 ERREGE LEGE-DEKRETUAREN
COVID- 19 ERAGIN EKONOMIKO eta SOZIALARI
AURRE EGITEKO PREMIAZKO
NEURRI EZOHIAK-





Zer kontziliazio neurriak hartu ditzake langileak Covid-19 egoeraren ondorioz zaintzak behar dituzten pertsonekin egoteko?

Lanaldi egokitzea eta lanaldi murrizketa

Zeintzuk dira 8/2020 Errege Lege-dekretuak aurreikusten dituen salbuespen egoerak?

Errege Lege-dekretuaren, 6.1 artikulua
aurreikusten dituen salbuespenak:

- Langilearen presentzia behar-beharrezkoa denean Covid-19 egoeraren ondorioz adin, gaixotasun edo desgaitasuna duen familiarra zain dezan. (Familiarrek odol bidezko bigarren graduako ahaideak eta zaintza zuzen eta pertsonala izan behar dute)
- Gobernu-agintaritzak Covid-19 egoeraren ondorioz hezkuntza zentroak edota bestelakoak ixtea erabakitzen duenean, zaintza edo arreta behar duten pertsonekin egotea.
- Orain arte ezkontide edo odol bidezko bigarren graduako familiarra zaintzen zuen pertsonak ezin duenean arduratu Covid-19 egoera dela eta.

**Soilik
emakumezkoen
eskubideak al dira?**

Ez. Eskubide hauek banakako eskubideak dira, arrazoituak eta neurrikoak izan behar dute enpresaren egoerarekin.

Bai. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eskubide hauek guztiak barneratzen ditu.

**Desadostasuna balego
enpresarekin, epaitegira
joan naiteke?**

Bai. Enpresa eta langilearen arteko akordioa ezinezkoa balitz, langilea joan daiteke auzitegira haren egokitze edo murrizketa lanaldi eskubidea eskatzera.

**Alarma egoeran,
lan-arloko
epaitegira joan
naiteke?**



LANALDIAREN EGOKITZEA

- COVID 19 -



Zer da?

Covid 19 egoeraren ondorioz zaintzak behar dituzten pertsonen egoteko aukera ematen digun lanaldia egokitzeko eskubidea da.

- LANORDUEN EDO BESTELAKO BEHARREN BANAKETA



- EZKONTIDE EDO IZATEZKO BIKOTE
- ODOL BIDEZKO BIGARREN GRADUKO FAMILIARRAK

Nork eska dezake?

Zaintza-lanak ziurtatzen dituzten besteren konturako langileak



Zertan datza?

ORDUTEGIA:

- Lanordu aldaketa
- Orduategi malgua
- Lanaldi zatitua edo jarraitua




ALDAKETA:

- lantokia
- betekizunak
- lan egiteko era (telelana barne)



Zenbateko epea dut lanaldi egokitua egiteko?

Lanaldi egokitzea aldi baterakoa da.
Covid-19 egoera berezia bukatu arte.



Nork erabakitzen du?

Langilearen eskubidea da, beti ere arrazoitua eta neurrikoa izanik. Enpresak eta langileak ados egon behar dute eta ahal duten guztia egingo dute akordio batera iritsi ditzaten.

Dagoeneko 37. artikulua lanaldi egokitze edo bestelako baimenarekin egongo banintz, eska dezaket aldaketa egoera berezi honengatik?

Bai. Langileak badu aukera aldi baterako etena egiteko edo baimen horien neurriak aldatzeko, egonaldi bereziarekin bat eginez gero.

Egokitzapena dela eta lanaldi jarraitua banuen, telelana egin dezaket?

Bai. Izan ere, martxoaren 17ko, 8/2020 Errege Dekretu-legeak telelana gomendatzen du, teknikoki baldintzak betetzen baldin badira.





LANALDI MURRIZKETA

- COVID 19 -



Nork eskatu dezake lanaldi murrizketa Covid-19 egoerak irauten duen bitartean?

12 urte beherako adingabeen legezkotaintza daukanak edo adin, istripu edo gaixotasun medio euren burua zaindu ezin dituzten odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailako familiarrak dituzten langileak.



Bi gurasoek edo bi anai/arrebek aukera dute murrizketa eskatzeko?

Bai. Banakako eskubidea da, beti ere enpresan bi pertsonak baino gehiago ez badu eskatu arrazoi berdinetatik. Egoera horretan, eta enpresaren funtzionamendurako arazoak egongo balira, enpresak eskubidea mugatzeko aukera izango luke.

**Zenbat murriztu
dezaket lanaldia?**



Egoera berezia dela eta, lanaldiaren %100 eskatu daiteke, ondo azalduta, arrazoitua eta neurtua izanik.

**Lanaldi murrizketak
eraginik al du
oporraldia edo
norbere eginbeharren
egunekin?**



Ez. Bai oporraldia, bai norbere eginbeharren egunak kontratua indarrean dagoenean gozatzen dira.

**Dagoeneko lanaldi
murrizketa banuen,
eskatu dezaket lanaldi
murrizketa berezia?**



Bai. Aldi baterako etetea egin dezakezu edo egoera bereziaren neurriak betez gero aldatzeko eskubidea izango zenuke. Honen berri emateko, aldez aurreko 24 orduko tarte egongo litzateke.